Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko abenduaren 21a, asteartea — 242 — Martes, a 21 de diciembre de 2021



## OÑATIKO UDALA

*2022. urteko egutegi fiskala*

Alkatetzaren 2021eko abenduaren 2ko 1244 zki.a duen Dekretuz erabakitatako egutegi fiskal hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udal honetako iragarkien taulan kaleratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Araudia onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. artikuluak aipatzen duen kobrantzarako iragarki betekizuna bete ahal izateko.

Errolda fiskalak, non ordaindu beharreko kuotak eta hauek finkatzen dituzten zergapeko elementuak ezartzen diren, jendaurreko ikusgai jarriko dira udaletxeko bulegoetan dagozkien kobrantza-epeak hasi baino hamabost egun lehenago eta hamabost eguneko epean.

Errolden erakustaldi publikoen aurka birjarpeneko errekurtsoa jarri ahal izango da erakustaldi publikoko epearen azken egunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean.

Azaldutako egutegi fiskalaren iragarkiak kobrantza iragarkiaren zeregina beteko du eta ondorengo zehaztapenaren arabera egingo da:

*a)* Orokorrean aldiroko zerga guztien ordaintzeko borondatezko epea egutegi fiskal honetan agertzen direnak izango dira. Ordaintzeko azken eguna jai eguna bada hurrengo lanegunerate luzatuko da.

Epeak ezarritako egunean bukatuko dira edo, hura larunbata edo jaieguna bada, hurrengo lanegunean.

*b) Ordaintzeko moduak:* Helbideratutako erreziboak zuzenean kargatuko dira herritarrek baimendutako Banku eta Aurrezki Kutxa kontuetan. Erreziboa helbideratu gabe duten herritarrei postaz bidaliko zaie beraien helbide fiskalera ordainketa egiteko beharrezkoa duten agiria.

*c) Ordaintzeko lekuak:* Ondoko erakunde laguntzaileen edozein bulegotan egin daiteke: Kutxabank, Laboral Kutxa, Banco de Sabadell, Caja Rural de Navarra, BBVA, internetez (www.euskadi.eus/nireordainketa) edo Udaletxeko herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ).

*d)* Borondatezko epean ordaintzeko epea amaituta zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituko dira, eta epe exekutiboko errekarguak, berandutze interesak eta, hala badagokio, sorrarazten diren kostuak gehituko dira.

Zerga hauen ezarpen eta eraginkortasunari buruz emandako egintzen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, borondatez ordaintzeko epean edo hori amaitu ondorengo egunetik aurrera kontatuko den hilabeteko epean.

Eta hala ageriko egiten da herritar guztiak jakinen gainean egon daitezen.

Oñati, 2021eko abenduaren 3a.—Izaro Elorza Arregi, alkatea.
(7849)

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Calendario fiscal año 2022*

Se publica este Calendario Fiscal, aprobado por Decreto de Alcaldía n.º 1244 del 2 de diciembre del 2021, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de cumplir la función de anuncio de cobranza, previsto en el artículo 18 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Los padrones fiscales, conteniendo las cuotas a pagar y los elementos tributarios determinantes de las mismas, se expondrán al público en las oficinas municipales quince días antes de iniciarse los respectivos periodos de cobro y por un periodo de quince días.

Contra la exposición pública de los padrones se podrá interponer recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde la fecha de finalización del periodo de exposición pública.

Este anuncio de calendario fiscal expuesto cumplirá la función de anuncio de cobranza. Cobranza que se efectuará de acuerdo con los siguientes extremos:

*a)* En general, los periodos de pago voluntario de todos los tributos periódicos serán los que figuran en el presente calendario fiscal. En caso de que la fecha final de pago sea festivo se ampliará hasta el próximo día laborable.

Los periodos finalizarán el día señalado o siendo este sábado o inhábil, el inmediato hábil posterior.

*b) Modos de ingreso:* Los recibos domiciliados se cargarán directamente en las cuentas autorizadas de Bancos y Cajas de Ahorro. Para los no domiciliados, el documento preciso para efectuar el pago de la deuda será enviado por correo ordinario al domicilio fiscal de los contribuyentes.

*c) Lugares para efectuar el pago:* En cualquiera de las sucursales de las entidades colaboradoras: Kutxabank, Laboral Kutxa, Banco de Sabadell, Caja Rural de Navarra y BBVA, por internet (www.euskadi.eus/mipago) o en el servicio de atención al ciudadano (SAC) del Ayuntamiento.

*d)* Transcurrido el plazo de ingreso, sin haberse efectuado el mismo, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y devengarán los correspondientes recargos del periodo ejecutivo, intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.

Contra los actos sobre aplicación y efectividad de estos tributos podrá interponerse ante el órgano que los dictó, el correspondiente recurso de reposición previo al contencioso-administrativo durante el periodo voluntario de pago o durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de finalización de aquel.

Lo que se hace público para general conocimiento de todos los ciudadano.

Oñati, a 3 de diciembre de 2021.—La alcaldesa, Izaro Elorza Arregi.
(7849)

EK\CV GAO-I-2021-07849

URTEAN BEHIN ORDAINTZEKO ZERGAK ETA TASAK / TRIBUTOS DE PERIODICIDAD ANUAL

| *Errolda/ Padrón* | *Borondatezko epealdia/ Periodo de pago voluntario* | *Helbideratuak/ Domiciliados* |
|---|---|---|
| Egoiliarren kanpoko aparkamentua/ Aparcamiento exterior para residentes | Otsailaren 3tik martxoaren 10era/ Del 3 de febrero al 10 de marzo | Otsailaren 4an/ 4 de febrero |
| Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga/ Vehículos de Tracción de Mecánica | Martxoaren 1etik apirilaren 25era/ Del 1 de marzo al 25 de abril | Martxoaren 4an/ 4 de marzo |
| Larre aprobetxamenduagatiko tasa/ Tasa por aprovechamiento de pastos | Maiatzaren 4tik ekainaren 10era/ Del 4 de mayo al 10 de junio | Maiatzaren 4an/ 4 de mayo |
| Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga/ Impuesto sobre Bienes Inmuebles | Maiatzaren 15etik ekainaren 30era/ Del 15 de mayo al 30 de junio | Ekainaren 3an/ 3 de junio |
| Mahai eta aulkiekin bide-publikoa okupatzeagatiko tasa eta kutxazainak/ Tasa por ocupación de vía pública con mesas y sillas y cajeros | Uztailaren 1etik abuztuaren 10era/ Del 1 de julio al 10 de agosto | Uztailaren 1ean/ 1 de julio |
| Baratza parkearen erabilera/ Utilización del parque de huerta | Abuztuaren 1etik irailaren 8ra/ Del 1 de agosto al 8 de septiembre | Abuztuaren 5ean/ 5 de agosto |
| Ibi iraunkorra, Garajeko tasa eta Kanposantua/ Vados, Tasa de Garaje y Cementerio | Irailaren 7tik azaroaren 10era/ Del 7 de septiembre al 10 de noviembre | Irailaren 13an/ 13 de septiembre |
| Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga/ Impuesto sobre Actividades Económicas | Urriaren 1etik azaroaren 10era/ Del 1 de octubre al 10 de noviembre | Azaroaren 10ean/ 10 de noviembre |
| Kultur ikastaroak/ Cursos Cultura | Azaroaren 16tik abenduaren 16ra/ Del 16 de noviembre al 16 de diciembre | Azaroaren 16an/ 16 de noviembre |

SEIHILABETERO ORDAINTZEKO ZERGAK ETA TASAK / TRIBUTOS DE PERIODICIDAD SEMESTRAL

| *Errolda/ Padrón* | *Borondatezko epealdia/ Periodo de pago voluntario* | *Helbideratuak/ Domiciliados* |
|---|---|---|
| Azoka zerbitzua/ Servicio de mercado | Lehenengo seihilekoa: Otsailaren 15etik martxoaren 25era<br>Bigarren seihilekoa: Azaroaren 2tik abenduaren 23ra/<br>Primer semestre: Del 15 de febrero al 25 de marzo<br>Segundo semestre: Del 2 de noviembre al 23 de diciembre | Otsailaren 18an<br>Azaroaren 4an/<br>18 de febrero<br>4 de noviembre |

HIRUHILABETERO ORDAINTZEKO ZERGAK ETA TASAK / TRIBUTOS DE PERIODICIDAD TRIMESTRAL

| *Errolda/ Padrón* | *Borondatezko epealdia/ Periodo de pago voluntario* | *Helbideratuak/ Domiciliados* |
|---|---|---|
| Publizitatea Kontzejupetik aldizkarian eta irratian eta zabor tasa/<br>Publicidad en la revista Kontzejupetik y en la radio y tasa de basura. | Lehenengo hiruhilekoa: Apirilaren 1etik 30era<br>Bigarren hiruhilekoa: Uztailaren 1etik 31ra<br>Hirugarren hiruhilekoa: Urriaren 1etik 31ra<br>Laugarren hiruhilekoa: Urtarrilaren 1etik 31ra/<br>Primer trimestre: del 1 al 30 de abril<br>Segundo trimestre: del 1 al 31 de julio<br>Tercer trimestre: del 1 al 31 de octubre<br>Cuarto trimestre: del 1 al 31 de enero | Hilabeteko lehen bost egunetan<br>Hilabeteko lehen bost egunetan<br>Hilabeteko lehen bost egunetan<br>Hilabeteko lehen bost egunetan/<br>Durante los primeros 5 días del mes<br>Durante los primeros 5 días del mes<br>Durante los primeros 5 días del mes<br>Durante los primeros 5 días del mes |

HILABETEROKO MAIZTASUNA DUTENAK / LOS DE PERIODICIDAD MENSUAL

Ordaintzeko epea: hurrengo hilabeteko 1etik 30-31ra.
Periodo de pago: del 1 al 30-31 del mes siguiente.

EK\CV GAO-I-2021-07849